



Hiztegitxoa 14-33


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abaildua 'eroria, ahula'	«...luzaroan egoten nintzen handik jaiki gabe, arratsaldeko argi abailduaren eta arratseko tristura isilaren lekuko.»	(156)
abiadan 'bizkor, ahalean, arin ere arin'	« Abiadan doa ura larreetan beherantz...»	(167)
adabaki 'txaplata, arropan konponketa'	«Sutondoan, aldamenean, amama adabakiak josten.»	(165)
adeitsu 'errespetuz'	«Igual hurrengoan bisita adeitsuagoa egingen ziotela, literaturaz eta abar mintzatzeko.»	(322)
afinatu 'aurrindu, gozatu, tonuan jarri'	«Haboro dena, haizeak udaberriaren lehen hedeak zekartzan, hostoak afinatzen zituen, arnasa berria ematen zion belarrari...»	(276)
agerre 'agerikoa, oztopo bakoa'	«Barranku gainetik jada, pinuek utzi zidaten leku agerretik so eginda, Garaiola txikia iruditu zitzaidan han barrenean.»	(260)
agertu-gordeka 'agerian ipini eta ezkutatu'	«Iheska jolastu nahi duenean, berriz, agertu-gordeka hasten da zuhaitz eta sasien artetik, han-hemenka, Adarbakoitz begiurdina.»	(149)
agitu 'gertatu, pasatu'	«...ia hogeituro urteko denbora iragan zen kontatuko den gertakaria agitu orduko. Orbela ia hogeituro aldiz zen lizundu.»	(274)
ahiturik 'erabat nekatua, agortua'	«Gero, Presebal, estropezu egin eta lurrera erori da, ahiturik , arnasarik gabe...»	(147)
ahuspez 'aurrez, ahoz behera'	«Barrualdera iragan eta lurrera bestaldera jausi zen ahuspez .»	(172)
aidaka 'behiak-eta animatzeko oihu eginez'	«Aitaitak akuiluarekin bideratzen zituen behiak, aidaka , bakoitzari bere izenez deitzen ziola. — Aio aioma! —esaten zien gelditzen zirenean.»	(245)
aiduru 'itxaroten, zain'	«Hogei urtez egon natzaio aiduru , orain hemen edirenen niala.»	(281)
aihenbelar 'huntza, huntzorria' (yedra)	«...leihoko tranga altxatu eta, barru olde ilun batek bultzatua, aihenbelarrean behera jaitsi nintzen.»	(242)
airatu 'airatu'	«Haizeak airatzen dio lepo gaineko eta buztaneko ilea.»	(151)
alarau 'orroa'	«... eta ahots kraskatuz hasi zen berriz oihuka. Alarauak latzak eta izugarriak ziren...»	(175)
alderrai 'hara-hona dabilena, bagabundoa'	«Txanpon solte bi nituen poltsikoan, baina ez nizkien haurrei eman. Kantoiko alderrai zahar gizajoari bota nizkion biak.»	(156)
andana 'piloa'	«Kartzelan geratzen zitzaion urte andana horretan poliglota bihur zedin.»	(322)
anpuluka 'tantaka, malkoka'	«Eta goizaldeetan ihintza erortzen da, anpuluka ...»	(180)
antigoala 'antzinatea'	«Hor dabilta nire ahizpak arinetan, antigoalean bezala.»	(178)
antxume 'ahuntz kumea, auma'	«Ilunabarrean, antxumea bere sasitzara eraman nuen. Iluntzeko haizeak aumaren belarrietan eta ilaje zurian habiak egiten zituen.»	(242)
antzeman 'igarri, nabaritu'	«...Presebalek emakume irudia antzeman du modu lausoan.»	(147)
apaila baleza 'prestakoko balu'	«Jainkoak, logalearekin, ohantzea apaila baleza hodeiertzean, eta han etzan baledi, ez litzateke Jainkoa.»	(182)
apar 'bitsa'	« Aparra ez da errautsa. Zein da gauzen izaera eta zentzua?»	(180)
apika 'agian, beharbada, ausaz'	«... gizontto hura ere existitzen ez direnetakoa izanik apika , harekiko solasa onartu zuen.»	(173)
arean 'ziurrenik'	«Urteak izango ziren arean baserrian inor bizi ez zela.»	(260)




arestiko 'lehengoa, lehenagokoa'	«...edalontzietara itzuli nintzen, detergentea bota eta urez hegikatu nituen. Arestiko bost kopa jada garbiak (...) gardentasuneraino igurtzi nituen...» (159)
argidura 'argitasuna (resplandor)'	«Ate hotsak entzunez esnatu zen tupustean. Begiak argiduragatik zabaldu ezinik erdi ikusi zuen ziegako lehen atea ireki zela...» (319)
arraildu 'zartatua, arrakalatua (harria)'	«Artega zegoen zaharra zutik, arropa arrailduen azpian larru zuria besterik ez zuela.» (279)
arranditsu 'handi-handian	«Bitxia da sinestea gure bizitza ezdeusa hil ondoko etorkizun unibertsalean arranditsuki jujatua izanen dela.» (252)
artega 'urduri'	« Artega hartu nuen hatz erakusleaz seinalaturiko botila...» (157)
artez 'direktoa, zuzena'	«Inspektore berriak guardiei ematen zizkien agindu artezak jada ametsetako gauza iruditu zitzaizkion...» (175)
asagotu 'urrundu'	«Nondik ezean ahalegindu naiz atzeraka, aldeetara asagotu guran, harik eta izkinaren kontra harrapatu nauen arte.» (268)
asapala 'trapala, lauoinka (galope)'	«Eta zaldi asapala entzun nuen, geroago eta hurrago, eta neure aurrez aurre isoka geldiarazi zuen zaldunak bere zaldia...» (243)
asturu 'patua, zoria'	«Sarritan iragaten dira ontziak belak beterik, brisaz bustirik, ilusioz puzturik, lurralde eta asturu ezezagunen baterantz.» (183)
asun 'belarkia, hazkura eragiten du'	«...doi-doi makurtuko du burua, asunek bezala, hotzikara sentitzean, eta laket zaio.» (166)
atabala 'danbortxoa'	«Haurrak ardi larruzko atabaltxoa dauka zinta urdinetik eskegirik gerrian.» (166)
ataka 'pasabide estua'	«...haur bat ikusi zuela gizon zahar baten eskutik Kakuetak atakara sartzen.» (284)
atarte 'ataria'	«...guarda bat heldu zen (...) fusila besapean, botak lokatzez haziak. Gure atartera sartu zen...» (239)
atzitu 'eutsi, heldu'	«Zuhaitzari heldurik, ozta-ozta eskua atzitu eta ezin gehiagoan lagundu dio andere akituari enborrean gora igotzen.» (152)
auma 'antxumea, ahuntzaren kumea'	«Ilunabarrean, antxumea bere sasitzara eramane nuen. Iluntzeko haizeak aumaren belarrietan eta ilaje zurian habiak egiten zituen.» (242)
azantz 'astrapala, zarata handia'	«Sagarrondo adar bat azantzaz eta hauts zuriz erortzen ikusi zuen kanpora irteeran.» (248)
aztoratu 'kezkatu, arduratu, larritu'	«Andereak Presebalen besoari heldu dio uhaldiak daramala sentitzean. Aztoraturik luzatu dizkio eskuak heroari...» (153)
baiko 'orduko, bezain laster'	«Harpe honetan iguriki gaitzazu, arrastirira baiko arropa berri eta jatekoarekin gibel jinen gaituzu.» (279)
baranoan 'inguruan'	«...agurearen bila hasi ziren harkaitz-zuloaren baranoan .» (283)
barrabasa 'okerra, deabrua halakoa'	«—Beti izan zara apur bat barrabasa . Ez duzu ezer esplikatu beharrik.» (262)
barren 'zehir'	«Presebal (...) erromes itsu batekin suertatu da bidean, eta elkarrekin doaz ibarrean barrena .» (145)
barrenean 'beheko aldean'	«Barranku gainetik jada, pinuek utzi zidaten leku agerretik so eginda, Garaiola txikia iruditu zitzaidan han barrenean .» (260)
bazkatu 'alatu, belarra jan'	«...belardiren batean bazkatzen ari da, akaso...» (149)
bebarru 'aterpea, etxearen beheko aldea'	«Sukaldeko atetik irten eta bebarrutik kanpora doa.» (166)
bedats 'udaberria' (zub.)	«...ia hogeituro denbora iragan zen kontatuko den gertakaria agitu orduko. [...] erresinola ia hogeituro aldiz zen bedatsean heldu...» (274)




behar ez denen bat 'zerbait larria'	«Ez zaitez beltzekin juntatu, esaten zidan amak, behar ez denen bat egingo dizute lehenago edo beranduago.»	(269)
behiala 'aspaldi, antzina'	«Hala ere, kontrario da dontzeila, behiala dontzeila izandako andere triste hori.»	(152)
behin eta berrizkotasun 'errepikapena'	«Eta han zegoela oraindik, sostengatu zuen soldadu ohiak mozkorren behin eta berrizkotasunarekin .»	(276)
belaze 'belardia'	«Ezustean, animalia zuri bat ikusi du urrun, kanaberen artetik belazera irteten.»	(146)
berbaro 'hitzots isila, urruna eta motela'	«Batzuetan entzun dut berbaroa hormaren bestaldean, jendea entzuten balego bezala.»	(172)
bide 'dirudienez, antza denez'	«Baina ez dakigu nor pasatzen den. Ilunetan iragaten bide dira, zuek ez duzue gauzez ezer entzun?»	(240)
bidenabar 'bide batez'	«Funtzionarioak, bidenabar , ez zion sinesten. Zurturik kontenplatu zuen ganbera grisa...»	(172)
bikoiztu 'bi zati egin'	«Narrazioan, bizitzaren haria amaiera dramatikoaren bila bikoiztu ahal da. Litekeena ere kontatu behar da.»	(160)
bilgor 'gantza (sebo)'	«Elizako erdi ilunetan bilgor kandela batzuk izeki zituen.»	(248)
bilurtua 'kateatua, bilurrez lotua'	«Han gizon bat aurkitu zuten, ziega ilunean bilurtua .»	(276)
birao egin 'madarikazioka aritu'	«Gizonttoa urduri zebilen alde batetik bestera, sala itxian, lantzean behin birao eginez .»	(173)
bisaia 'aurpegia, antzekoa'	«...bibotedun gizonak barrundatzen nituen zelatan, edo boxeolari ohien bisaia koak.»	(163)
bokata 'arropa garbitu berria (colada)'	«Eta gero belazean bokata zabaltzera ere ez da joaten ausartu.»	(149)
bozkario 'poza, zoriona'	«...gudaldi luze irabaziaren bozkarioarekin .»	(152)
branka 'ontzien aurreko aldea'	«Baina branka portura datorrenean bakarrik dute marinelek itsasoa hain maite.»	(180)
buruari eman 'gogoetan hasi'	«Ea denak ontzi berberean zergatik sortu ote garen eman nion buruari orduan, zertarako jaio ote garen guztiok mundu honetara...»	(162)
buruz buru 'aurre-aurrean'	« Buruz buru plantatu zaidanetik igarri dut, ustekabean, problemak izango nituela beltzarekin.»	(267)
denean 'eremu guztian'	«Iturri inguruan lokatza eginik zegoen, aztarna ugariren arrastoeekin, eta belarra denean zapaldurik eta lohiturik.»	(241)
dirdira 'distira'	«Neskatoaren begi zabalegiek dirdira berezia zuten kanpoan...»	(159)
drezatu 'zuzendu'	«Baina jendea ez zen hurbiltzen [...], ez zuen inork begirada haragi ustelkor hartara drezatzen .»	(273)
durundia 'oihartzuna'	«Ororen buru, zementuzko eraikuntzaren aldamenara iritsi zen, han egiten baitzen durundia larrien.»	(172)
ediren 'aurkitu, idoro, kausitu'	« Ediren zuten gizonak, agure meskabatu mutu hark, hiltamuan dauden gorputzen mugimendu murrizta zuen, eta hildako gorpuen hatsa.»	(276)
egoneza 'urduritasuna, ezinegona'	«Atertu zuen kanpoan, arte baterako behintzat, eguraldiak egoneza baitzuen.»	(276)
egundo baino beteago 'inoizkorik beteen, sekula...'	«Kalea neoi argiz egundo baino beteago eta koloretsuago dago...»	(267)
egunen harandian bizi 'hilda egon'	«— Hemen ez duzu edirenen —bota zuen haurrak—, engoitik egunen harandian bizi baita.»	(281)




eho die 'hil dute, eran dute'	«Mila seiehün eta hirutan hogei ta bateko azaroaren zortzian eho die Beñat Goihenetxe Mithikileko erretora...»	(273)
ekaitza ekarri 'eguraldiak ekaitz itxura eduki'	«Izarak batu eta laster nator, ekaitza dakar eta.»	(166)
elezahar 'legenda'	«...haizea bezala, elezaharretako gerlari herrariak bezala.»	(285)
emaro 'ugari'	«Ura emaro jausten zen teilatuaren hegaletatik, eta itoginen zaratak galarazten zidan loa.»	(239)
endurturik 'akiturik, ahuldurik'	«Beldurrez, gorputza endurturik , mutu, arineketan abiatu nintzen landan behera. Etxera al bait arinen ailegatzeko...»	(243)
engoitik 'ja, jada, jadanik'	«—Hemen ez duzu edirenen –bota zuen haurrak–, engoitik egunen harandian bizi baita.»	(281)
enparauak 'gainerakoak, gainontzekoak'	«Haurrak oinez ikasten du gaztelu atarian. Txitei segika jolasten da inguruko enparauetz ohartu gabe.»	(150)
erauzi 'indarrez atera'	«...enborrean goiti igotzen da urg aina, dena erauziaz , dena eramanez...»	(152)
erdietsi 'lortu'	«...unikornioa ikustea erdietsen dute.»	(149)
erdimin 'umea jaiotzeko mina'	«Dontzeila, ama berria, erdiminetan dagoela, bele beltz lodi bat pausatu da dorreko almena gainean, patuaren agerbidea balitz bezala.»	(150)
erdu 'zatoz, etor zaitez'	«Hartu zakuto batean eraman nahi duzun beste edozer, eta erdu berehala kortara.»	(244)
eresi 'hil kantua, norbait hiltzean'	«Basora itzultzeko abiatu zenean kantatu egin nuen. Eta eresi horren erritmoan abaildu zen eguna iluntzera.»	(180)
erlatsez 'latza, zakarra, ez tul antzekoa'	«...esan zidan zaldunak ahots erlatsez .»	(243)
ernegu 'amorruez, madarikazioz'	«Ezusteokan, gizon biak mahaitik ernegu aurpegiarekin jaiki ziren.»	(161)
errainu 'izpia'	«Eguzki errainuak hostoen artetik sartzen dira fruitu jada doratuen azalerraino.»	(146)
errari 'galdurik, batetik bestera'	«Arima zintzoak errari zebiltzan, eskaileretan behera eta eskaileretan gora.»	(163)
erresinol 'urretxindorra (txori kantaria)'	«... erresinolak beren kantuen mataza soltatzan ari direla.»	(145)
erridimitu 'libratu, garbitu'	«Mollyk erridimitzen ditu belztasunaren ezbehar eta humanitatearen makur guztiak.»	(269)
errime 'ahots biziz'	«—Gabon, Ismael, lanpostua aldatu diozu Josemariri ala? —esan zidan errime , lizuntasunaren neurri exaktua zuen gorputz hura erakutsiaz.»	(161)
erromes 'peregrinoa'	«Presebal (...) erromes itsu batekin suertatu da bidean, eta elkarrekin doaz (...) ibarrean barrena.»	(145)
esnatu 'atzarri, itzartu'	«Gero, baina zenbat geroago, ohantze biguinean etzanik esnatu da.»	(147)
estakuru 'aitzakia'	«Koblakariak irribarrea izango zuen ezpainetan, mutila burukoa eskuan sos eske igortzean, ez tarria gertatu eta kantuz hasteko estakuruan .»	(250)
estekaturik 'tinkaturik, loturik'	«...eta, hala, nahiago izan zutela bizirik eta estekaturik gorde, behar zen momenturako.»	(275)
estropezu egin 'tupust egin'	«Gero, Presebal, estropezu egin eta lurrera erori da, ahiturik, arnasarik gabe...»	(147)
etzan baledi 'etzango balitz'	«Jainkoak, logalearekin, ohantzea apaila baleza hodeiertzean, eta han etzan baledi , ez litzateke Jainkoa.»	(182)




ezelako 'inolako'	«...oreinen bat iragaten da noizean behin ezelako babesik gabe.»	(148)
ezohiko 'ohi ez bezalakoa, arraroa'	«...erabat hutsik zegoen geltoki hura, ezohiko bakardadean.»	(170)
ezustean 'ustekabean'	« Ezustean , animalia zuri bat ikusi du urrun, kanaberen artetik belazera irteten.»	(146)
fatu 'zoria, adurra'	«...bele beltz eta lodi bat pausatu da dorreko almenetan, patuaren seinale gisa.»	(149)
ferekatu 'laztandu, xerak egin'	«Hautzaroko oroitzapenak (...) lainoen moduan iragaten dira, laru edo ilunago, garai-garaiak edo behealdeak ferekatuz ...»	(165)
gabirai 'txori mota, harrapakaria'	«Eguneko azken orenean, gabirairen bat ibiltzen da beti airean, zerbaitetara goitik behera jausteko gertu.»	(149)
garo 'ihintza'	«Agiurearen oinak ikaratu egin ziren, ortozik, garoz bustitako belarra zapaltzean.»	(278)
garrasi 'oihu larria, indartsua'	«Ea boxeatzeko ala kolpeen zakua izateko ordaintzen didaten egin dit garrasi belarrira.»	(271)
gatzunezko 'gesalezkoa, gatzeko'	« Gatzunezko berbaldiak entzuteko uhinen artean?»	(177)
gauza izan 'kapaz izan'	«Zulo hartatik irteteen ere, ez zen pausorik emateko gauza . Bizkarrean atera behar izan zuten ziegatik, zurubietan gora eta gazteluko harresietatik lekora.»	(276)
gertu 'prest'	«Eguneko azken orenean, gabirairen bat ibiltzen da beti airean, zerbaitetara goitik behera jausteko gertu .»	(149)
gibel jin 'bueltan etorri, itzuli'	«Harpe honetan iguriki gaitzazu, arratirira baiko arropa berri eta jatekoarekin gibel jinen gaituzu.»	(279)
gizagaindiko 'neurritz kanpokoa, (sobrehumano)	«Haize gorri ilun arraroa zen nagusi ibarrean, ia gizagaindiko zirudien. Aitaitak akuiluarekin bideratzen zituen behiak, aidaka...»	(245)
gizaseme 'pertsonea'	« Gizasemeekin , alboan uzten dugu ezkata gona, eta zango zuri eta bigunen artean hartzen dugu amorantea.»	(183)
gogaiturik 'nazkatuta, gogo gabe'	«Hotzez dardaraka zegoen, nekaturik, gogaiturik . Bakarrik eta biluzik, pospolurik ere ez zuen.»	(322)
gogorazio 'gomuta, oroitzapena'	«Su-lametatik, gogorazioa errekarren imajinara apartatzen zitzaion.»	(249)
gomutatu 'oroitu, gogoratu'	«Anderea aitatzean, argudio zaharrak gomutatu zituen.»	(251)
gontza 'euskarria	«Sarrailarik gabeko aterdia bultzatu eta gontzek eman zidaten ondoetorria.»	(260)
gupidatu 'errukitu, pena hartu'	«Ai, Molly, zeu bakarrik gupidatu zara nitaz, han urrun zuk, begiak hertsit dituzu. Negar batean hasiko zarela pentsatu dut.»	(271)
gura adina negar egin 'negar asko eta asko egin'	«Sortetxetik bota zituzten, gura adina negar egin zuten joatean...»	(261)
gurutzune 'bidegurutzea'	«...herrialdeko bidegurutze guztietan, hainbeste gurutzunetan non gizon bakar baten gorputzak ezin baitzuen hainbeste haragi eman.»	(273)
habaila 'harriak jaurtikitzeko tresna'	«Doazen arinaren arinez, ez bata ez bestea ia ezin dira ikusi. (...) Presebal habailaz jaurtiriko harria bada.»	(146)
haboro 'gehiago'	« Haboro dena, haizeak udaberriaren lehen hedeak zekartzan, hostoak afinatzen zituen, arnasa berria ematen zion belarrari...»	(276)
hagatik 'horrexegatik hain zuzen'	«Beraz, eta hagatik , ezintasunezkoa da hau guztiau.»	(174)
haigu 'erdu, zatoz'	« Haigu , Joana, so egiozu kometari! Eta han agertu zen kometa, suzko karroza legez...»	(256)




haindu 'kasu egin, keinutxo bat egin'	«Neskatoa haindu zuen edonola ere, susmo muturraren ordezeko irribarrea erakutsiz.»	(159)
handixik 'handik bertatik'	«— Handixik sortzen dituzu eta haraxe itzultzen omen dituzu urak oro.»	(282)
harripausu 'erreka zeharkatzeko harriak'	«Egunero kontenplazten zuen koadroa ere horman zegoen, erreka harripausuena .»	(248)
hats 'kiratsa'	«Ediren zuten gizonak, agure meskabatu mutu hark, hiltamuan dauden gorputzen mugimendu murrizta zuen, eta hildako gorpuen hatsa .»	(276)
hauspo 'bular aldea, birikak'	«...ukabilkada bortitzak arnasarik gabe utzi nau, hauspoa lehertu balit bezala.»	(268)
haustear 'apurtzeko moduan'	«Zergatik uste duzu ari naizela eztarria haustear garrasika?»	(173)
hazia 'handitua'	«...guarda bat heldu zen (...) fusila besapean, botak lokatzez haziak . Gure atartera sartu zen...»	(239)
hazkura 'hatz egiteko nahia, hazgalea'	«...eta hautsa airean gora, haurraren betileetan hazkura eraginez.»	(166)
haztamuka 'itsu antzera, eskuekin haztatuz'	«Orduan ere, orain bezala, gauzen zentzura hurbiltzen nintzen, baina haztamuka eta antzeman ezinik.»	(161)
hede 'uhala, larruzko zinta'	«Haboro dena, haizeak udaberriaren lehen hedeak zekartzan, hostoak afinatzen zituen, arnasa berria ematen zion belarrari...»	(276)
heldubada 'behabada, agian'	«Kanta, bortuko txorien kantu zaharragoei deika zebilen heldubada . Kantarekin, urrats leun batzuk ere hurrandu ziren.»	(280)
hetsi 'hertsi, itxi, zarratu'	«Ai, Molly, zeu bakarrik gupidatu zara nitaz, han urrun zuk, begiak hetsi dituzu. Negar batean hasiko zarela pentsatu dut.»	(271)
hiltamuan 'hiltorian'	«Ediren zuten gizonak, agure meskabatu mutu hark, hiltamuan dauden gorputzen mugimendu murrizta zuen, eta hildako gorpuen hatsa.»	(276)
hodeiertz 'ortzimuga, horizontea'	«...ohetik jalgitzeko kemena bildu duenean, leihoraino heldu da. Haitz urdin eta ezezagunak ikusiko ditu hodeiertzean .»	(148)
horaildu 'horitu, heldu'	«...fruituen azalak ere horaildu eta gorritu egiten dira zintzilik. Haizeak soinu xumea egiten du...»	(145)
hozkirri 'freskoa'	«...bortu aldeko haize zuri hozkirriak ferekatzen zituen zamarien zurdak, mutilen atorrak eta agurearen ile luze urdinak.»	(276)
hurrandu 'hurreratu, hurbildu'	«Kanta, bortuko txorien kantu zaharragoei deika zebilen heldubada. Kantarekin, urrats leun batzuk ere hurrandu ziren.»	(280)
igorri 'bidali'	«— Beste inspektore bat igorri dute Udaletxetik —esan zuen besteren batek kanpotik.»	(174)
igurtzi 'frotatu'	«...argiztapenagatik txikiagoturiko begiak igurtziaz .»	(160)
ihar 'idorra, lehorra'	«...zoruko orri iharrak euriaren azpian ikaratu egiten dira...»	(166)
ihintza 'garoa, goiztiriko ur tantak'	«Eta goizaldean ihintza erortzen da, anpulu...»	(180)
irarri 'grabatu'	«...kalbindarrek hilarrian izenarekin batera heriotzaren kontaeran irarri baitzuten.»	(255)
isiotu 'piztu, irazeki'	«...han dago behialako arratsaldea (...) leiho irekia eta su isiotu berria sukalde ilunean.»	(165)
isoka 'iso' esanez, oihu eginda	«Eta zaldi asapala entzun nuen (...) eta neure aurrez aurre isoka geldiarazi zuen zaldunak bere zaldia; zaldia atzeko bi hanken gainean altxatu zen irrintzika...»	(243)
isurkiaz gora 'korrontearen kontrara'	«...harresiak saihestuz iragan zuten Atharratze, arin, uraren alderantzizko bidean, erreka isurkiaz gora , urki oihanera sartzeko.»	(277)




izatekotan 'zerbait izango bazen'	«Ilusioarena soilik izan zitekeena, izatekotan .»	(171)
izpurrik ere 'apur bat ere, izpi bat ere'	«Eta ez da mugitu, (...) izpurrik ere ez da mugitzen adarra dontzeilaren esku amultsuetan dagoen artean.»	(151)
jalgi 'altxatu, jaiki'	«...ohetik jalgitzeko kemena bildu duenean, leihoraino heldu da. Haitz urdin eta ezezagunak ikusiko ditu hodeiartean...»	(147)
jendeteria 'jende saldoa, multzoa'	«— Jendeteria kezkatu urduria elkartetik sor daiteke kimera kolektiboa —eman zion funtzionarioak bere buruari— halako txakur ametsa bezala.»	(171)
jin 'etorri'	«...Oloroeko merkatura jindako mutil bat ostatura sartu zen, ea atertzen zuen zain.»	(274)
kakanarru 'ume txikia eta eskasa'	«...baina haur kakanarru beltzaran haien eskuak hamaika aldiz zapaldurik zeudela zirudien...»	(156)
karesatu 'laztandu, ferekatu'	«Titiak laztandu, sabelpea karesatu .»	(178)
karroindatu 'izoztua, leitua'	«Elur hori guztia berorren baitan baizik ez dago. Eta agian bai, baina atertu gabe egiten zuen, eta karroindatua zen, lausoa, ezezeza ezina.»	(257)
koblakari 'poeta kantaria'	«Beldurrak astintzen zituen minak, belarri arrotzek josten zituzten koblakarien ezpainak.»	(274)
kurubilkatu 'batu-batu eginda jarri'	«...lo kuluxka bat egitera etzan zen zoruan. (...) Kurubilkatu eta (...) errenditu zitzaizkion betazalak.»	(175)
lakar 'latza, garbia ez dena, kraskatua'	«—Orain, norekin mintzatu behintzat izango dut —esan zion gizonttoak boz lakarrez .»	(172)
lanbroa 'zirimiria, euri fina'	«Eta zalduna berehala abiatu ziren, lauhazka, eta sagarrondoak eta harresiak baino harantzago galdu ziren, lanbroak lausotzen zuen larre hodeiartean.»	(254)
lander 'pobrea'	«Etxeko jaun zein landerrak , andere ezkonduak zein dontzeilak erakartzen zituen...»	(251)
laratz 'behe suetako katea'	«Itzartzean, hotza sentitu nuen. Salarantz so egin eta, laratzeko sua itzalirik zegoen.»	(247)
laru 'argia / horia, beilegia'	«Haurtzaroko oroitzapenak (...) lainoen moduan iragaten dira, laru edo ilunago, garai-garaiak edo behealdeak ferekatuz...»	(165)
laskitu 'estropeatu'	«Nik mahai handizat neukana oroitzapenetan, beti azpitik gora begiratu behar izaten nuena, txikia eta laskitua ikusten nuen.»	(260)
lastargi 'suzia, tortxa'	«Egunez ere eskuak lastargi gisa altxaturik eraman behar zituen...»	(179)
lauhazka 'trostan, galapan'	«Eta zalduna berehala abiatu ziren, lauhazka , eta sagarrondoak eta harresiak baino harantzago galdu ziren, lanbroak lausotzen zuen larre hodeiartean.»	(254)
lekora 'kanpora'	«Ateaz lekora autoren bat iragaten zen lantzean behin, astiro, ur zipriztinak altxatuz...»	(158)
lepauztai 'hezur bat, klabikula'	«Hegal hezurak lepauztaien azpian plegatu zitzaizkigun, arrain buztana hazten zitzaigun artean.»	(179)
lerde 'adurra, ttua, txistua'	«Zer demontre nahi du anormal horrek ahotik lerdea dariola?.»	(268)
limurtua 'bere egina, sareetan harrapatua'	«Gero kanta urruna entzun zuen, haizeak limurtua .»	(280)
litekeena 'izan ahal dena, posible dena'	«Narrazioan, bizitzaren haria amaiera dramatikoaren bila bikoiztu ahal da. Litekeena ere kontatu behar da.»	(161)
lizundu 'hondatu'	«...ia hogeituro urteko denbora iragan zen kontakutako den gertakaria agitu orduko. Orbela ia hogeituro aldiz zen lizundu ...»	(274)
lo kuluxka 'lotalditxo'	«... lo kuluxka bat egitera etzan zen zoruan. (...) Kurubilkatu eta (...) errenditu zitzaizkion betazalak.»	(175)



loerrear egon 'lotserrean, lo egin ezinda begiak err'	«Gaeuz, luzaroan entzun nituen aumaren kexuak. Loerrear egon nintzen ohean.»	(242)
logale 'logura'	«Jainkoak, logalearekin , ohantzea apaila baleza hodeiertzean, eta han etzan baledi, ez litzateke Jainkoa.»	(182)
loka 'egonkorra ez dena, kili-kolo egon'	«Aulki lokaren gainean, haurra poztu egin da amama etxe aurrean ikustean, makilatxoaz atabala jotzen ere hasi da...»	(166)
lokaztua 'basaz betea, lupetza'	«Oloroe hiriko harlauzak zapaldu zituen lehendabizi, gero bide lokaztuan barrena joan zen urloak saihestuz.»	(276)
lorratz 'arrastoa'	«...haren ontziaren lorratzean joaten nintzen.»	(181)
maginatik idoki 'zorrotik atera'	«Soldaduak, frantses eta biarnes eleak ezpainetan [...] lumadun sonbreiruekin zebiltzan, ezpata maginatik idoki beharrik gabe.»	(274)
makur 'okerra, falta'	«Mollyk erridimitzen ditu belztasunaren ezbehar eta humanitatearen makur guztiak.»	(269)
mataza 'korapiloa'	«...erresinolak beren kantuen mataza soltatzten ari direla.»	(145)
mendre 'ahula'	«Beso zabalago eta bigunagoak ukan nahi lituzke apika, gorputz mendrea hobeki babesteko.»	(277)
meskabatu 'zorritxarra jasandakoa'	«Ediren zuten gizonak, agure meskabatu mutu hark, hiltamuan dauden gorputzen mugimendu murrizta zuen, eta hildako gorpuen hatsa.»	(276)
more 'tristea, malenkoniatsua (konn.)'	«...sartzen nintzen taberna hartara egunero, ordu morean , kalean euria hotz-hotza egiten zuelako.»	(155)
mozkor 'mozkortia, edanda dagoena'	«Eta han zegoela oraindik, sostengatu zuen soldadu ohiak mozkorren behin eta berrizkotasunarekin.»	(276)
nondik ezean 'irteerarik gabe'	« Nondik ezean ahalegindu naiz atzeraka, aldeetara asagotu guran, harik eta izkinaren kontra harrapatu nauen arte.»	(268)
ohantze 'etzalekua, ohatzea, ohea'	«Gero, baina zenbat geroago, ohantze biguinean etzanik esnatu da.»	(147)
ohi 'izandakoa'	«...boxeolari ohien aurpegiarekin.»	(157)
oinaze 'sufrimendua, mina'	«...haurra, ur uherrean sasiatar loturik, hotzez eta oinazez , amamari deika hasi da.»	(168)
oinaztargi 'tximista, inisitua'	«Berehala, oinaztargi batek jo du gazteluaren almena, suzko munstro legez, eta erori dira harriak.»	(152)
okaran 'fruta mota'	«Sudurra okaran ondu eta zartatu gisa sentitzen dut aurpegiaren erdian.»	(269)
okil 'txori mota, zuloak egiten ditu'	«... okilak enborren larru-soinak zulatzen ditu...»	(148)
ola 'lantegia / txabola'	«Erreboltara jalgitako laborariak etxera itzuli ziren [...]. Artzainak oletara itzuli ziren, eta ezkutuan gorde zituzten makilak.»	(274)
olde 'indarra	«...leihoko tranga altxatu eta, barru olde ilun batek bultzatua, aihenbelarrean behera jaitsi nintzen.»	(242)
ondu 'heldua'	«...sagar bat jan nahi nuke, hartuko al didazu onduren bat arbolatik?»	(146)
onezkoak egin 'harremanak bakez egin, lagundu'	«Bizitza guztian arrazen artean onezkoak eginen , eta hara non datorren tximino hau dena hondatzera.»	(269)
orbeldegi 'hostoak metatzen diren lekua'	«'Goazen neure etxeko ohera', esaten zidan, 'edo basoko orbeldegiren batera'.»	(182)
orein 'belarjale adarduna'	«... oreinen bat iragaten da noizean behin (...) ezelako babesik gabe.»	(148)



osin 'lurreko zulo sakona'	«Batzuetan ez zegoen harririk uretan, osinak ere egon zitezkeen.»	(249)
oskarbi 'zeru garbia'	«Badoaz biak, gaztea eta agurea, arratsalde oskarbiko bidean.»	(153)
papargorri 'txindorra, papogorria (txoria)'	«Airean ez da haizeak hostoetan eragiten duen soinua eta papargorrien aldizkako eresia besterik entzuten...»	(150)
paratu 'ipini, jarri / prestatu, apailatu'	« <i>The Waste Land</i> zabaldu, irakurtzen paratu eta hiru-lau hosto erauzi zizkion.»	(320)
pasmatu 'gangrenatu'	«...amak zauria garbitu zion, pasmatu orduko.»	(240)
peskizan 'bila, -en atzetik'	«...marinelaren bidaia ozeano neurrigabeen zehar, ontzi potingoan gatibatua, olatu handien menpe (...) eta portu urrunegien peskizan beti»	(253)
polpola 'hotsa, zarata' (onomatopeia)	«Baina dena mantso zegoen, geldi-geldirik. Iturriko ur erioaren polpola , jaikitzen ari zen eguzki gorria.»	(241)
potingo 'bateltxo, txalupatxo'	«Are hunkigarriagoa da marinelaren bidaia ozeano neurrigabeen zehar, ontzi potingoan gatibatua, olatu handien menpe...»	(253)
profitatu 'aprobetxatu'	«...bere esku zuri izoztuak hantxe eduki zituen luzaroan, epeltasun arrastoak profitatzeko .»	(247)
senperrena 'eginahala, ahalegin itzela'	«...izaki horrek bizitzeko eta ganora ez galtzeko egiten duen ahalegina eta senperrena .»	(252)
soberna 'soperna, uholdea'	«...igerian doa, uholdeak guztiak daramatzala sentituz, ez aterperik ez euskarririk inori ematen ez dion itzelezko sobernan .»	(152)
sos 'dirua, txanpona'	«Koblakariak irribarrea izango zuen ezpainetan, mutila burukoa eskuan sos eske igortzean, eztarria gertatu eta kantuz hasteko estakuruan.»	(250)
sujet 'gaia'	«Ez zen ezpain osasuntsuetan sortu, bortuetan oihartzun egin eta ibarretan behera hedatzen ziren kantuen sujeta .»	(274)
titare 'atzamar puntako josteko tresna'	«...eta itzuleran titare berriak ekarriko dizkio amamari...»	(167)
total 'finean, azken batean'	« Total , mihia bertan ustelduko zitzaiola bitartean. Arratoiek jango zutela.»	(322)
totolotuta egon 'dorpetuta, indar barik, motel'	« Totolotuta nago ja kolpeekin.»	(269)
tupustean 'ustekabeen, bat-batean'	«Ate hotsak entzunez esnatu zen tupustean . Begiak argiduragatik zabaldu ezinik erdi ikusi zuen ziegako lehen atea ireki zela...»	(319)
txatar 'burdina zaharra	«...zartakoak masaila jotzen didanean, txatar tona bat sagar helduaren gainera jaustea bezala...»	(270)
txirrikari 'irrintzi eginez, soinutxoak'	«... txirrikari zihoan idi gorriaren gurdia bezala, munduaz axolatu gabe.»	(282)
ubeldu 'morea, ilundua'	«Laino ubelduek [...] emaro bota zuten euria.»	(276)
uhaitz 'ibaia, hazita dagoenean'	«Irurin barrena, uhaitz bazterreko beira zurrumurrua entzun zuten iragaitean.»	(277)
uhal 'larruzko hedea'	«...zalditik jaitsi, uhalak erromesari eman eta arbolara igo behar izan du (...) sagar umoak hartzera.»	(146)
uhaldi 'uholdea, uriola'	«Andereak Presebalen besoari heldu dio uhaldiak daramala sentitzean. Aztoraturik luzatu dizkio eskuak heroari...»	(153)
uher 'iluna, basa kolore nahasikoa'	«...haurra, ur uherrean sasiatar loturik, hotzez eta oinazez, amamari deika hasi da.»	(168)
umo 'heldua, ondua'	«...zalditik jaitsi, uhalak erromesari eman eta arbolara igo behar izan du (...) sagar umoak hartzera.»	(146)



une-unean 'berehala, ato berean'	«Presebal ere, une-unean , sagarrondoaren adarretik salto egin eta korrika doa, ez bere zaldiari ez erromes itsuari begiratu gabe...»	(146)
ur lats 'euriak sorturiko errekatxoak'	« Ur latsak elkartzen dira errekastotxoak sortzeko eta makilatxoek kolpetxoek...»	(167)
urdinabar 'kolore nahasia (uraren antzeko)'	«— So egizu. Zure oihua. Gela urdinabar hau. Hilok.»	(174)
urez hegikatu 'ura bota ingurutik'	«...edalontzietara itzuli nintzen, detergentea bota eta urez hegikatu nituen. Arestiko bost kopa jada garbiak (...) gardentasuneraino igurtzi nituen...»	(159)
urkabeala 'urkamendira, urkatzeko tokira'	«Goi goizik eraman die ürkakeala ...»	(273)
urketa 'ur bila, urtean'	« Urketa eta jolastera etortzen ziren neska-mutikoetarik bat ere ez zegoen.»	(241)
urlo 'ur geldia, putzua, potxongoa'	«Oloroe hiriko harlauzak zapaldu zituen lehendabizi, gero bide lokaztuan barrera joan zen urloak saihestuz.»	(276)
xaxatu 'zerbait egitera bultzatu, animatu	«Batzuek beltza xaxatzen dute nire aurka.»	(269)
xede 'helburua, jomuga'	«Presebal, liburuko heroiak, leiendako animalia ikusiz gero ez du hura harrapatzeaz beste xederik .»	(146)
xuka (hizketa) 'adizkiei "zu" marka gehitzea'	«... hartu omen zibun > zuen / bizi dituzu > dira / han egoten duzu > da / joan behar dizugu > dugu / ...»	(278)
xume 'eskasa, leuna, apala'	«...fruituen azalak ere horaildu eta gorritu egiten dira zintzilik. Haizeak soinu xumea egiten du...»	(145)
zai 'gona, azpikogona'	«Neskamea (...) besoa luzatuz aulki gainetik zaia hartzeko.»	(247)
zamari 'zaldiak-eta (mandoa, moxala...)'	«...bortu aldeko haize zuri hozkirriak ferekatzen zituen zamarien zurdak, mutilen atorrak eta agurearen ile luze urdinuak.»	(276)
zantar 'itsusia, desatsegina, kakatia'	«Horregatik arrimatu nintzen etxe honetara. Ordu zantarrean , barrura erori nintzen.»	(173)
zilegi egin / izan 'permititu'	«Testigurik ezak bakarrik egiten zuen zilegi egiten ari zena.»	(172)
zipriztin 'txipliztada'	«Ateaz lekora autoren bat iragaten zen lantzean behin, astiro, ur zipriztinak altxatuz...»	(158)
zitu 'uzta, fruitua'	«...ene kobla kantuetan bada hamaika zitu , ezinezko den guztia kantuz posible duzu...»	(250)
zohardi 'argia, izarrez betea'	«Ene izarra, gau zohardian , denetan urrunena da. Gauzak ukitu nahi nituzke, ez pentsakizunak.»	(180)
zurbil 'kolorge, zurixka'	«Ai ene! Uhinek zerabilten neure amorante zurbilaren gorpua, lotan eta zuri elur herrialde bat bezala.»	(183)
zurdak 'zaldien ile luzeak'	«...bortu aldeko haize zuri hozkirriak ferekatzen zituen zamarien zurdak , mutilen atorrak eta agurearen ile luze urdinuak.»	(276)
zuringo 'zuritxoa, gutxiespenez'	« Zuringo kabroia, bota dit orain.»	(269)
zurrun 'gogortua, tentsioan dagoena'	«Ez daude urrun, hortxe bertan ikusten ditut polizia uniformeak jendartean, harrokeria zurrun horrekin.»	(270)
zurubi 'biribileko eskailerak'	«Zulo hartatik irteteen ere, ez zen pausorik emateko gauza. Bizkarrean atera behar izan zuten ziegatik, zurubietan gora eta gazteluko harresietatik lekora.»	(276)